



Zertan asmatu dugu? Zertan huts egin dugu? Azken 20 urteotan egin eta lortutakoa baloratuko dugu aurten.



Elgoibarko Izarraren bigarren etapan (1990-2010) egin duguna baloratu ondoren, Elkarteak etorkizunean bete behar duen funtzioa aztertu eta erabaki nahi dugu.

Elgoibarko Izarran lanean jardun zuten ehunka elgoibartar euskaltzaleen lekukoa hartu ondoren, 1990ean ekin genion Elkartearen bigarren etapari. Eta kontuak gaizki atera ez baditugu, 20 urte pasa dira ordutik. Une aproposa begitandu zaigu orain arte egin dugunaren gaineko gogoeta egiteko: Zertan asmatu dugu? Zertan huts egin dugu? Zer daukagu hobetzeko edo zuzentzeko? Zein dira gure indarguneak? Eta, makaluneak? Hauek eta antzerako hamaika galderaren bueltan jardun nahi dugu. Bi helburu nagusi izango ditu gogoeta honen: bat, orain arte egin dugunaren balorazioa egitea; eta bi, aurrera begira egin behar dugunaren oinarria jartzea.

Abendura artekoa atzera begira pasako badugu ere, gure erronkak aurrean daude: etorkizunean. Eta orain artekoak

eman duena baloratu ondoren, etorkizunean egin nahi duguna hausnartu eta erabaki nahi dugu. Horretarako, besteak beste, Euskara Elkartearen Topagunarekin batera jardungo dugu. Izan ere, ez gara gu bakarrik etorkizuna aztertzen hasi garenak. Euskara elkarte gehientsuenok sumatu dugu honen premia, eta denok gaude gogoeta prozesuan murgilduta.

Zer funtzio bete behar du Elgoibarko Izarrak, Elgoibar euskaldunagoa izateko ahaleginean? Non jarri behar ditugu Elkartearen fokuak? Udazkenean ekingo diogu gogoeta prozesuari, eta, ondo bidean, 2011ko neguarekin batera amaituko dugu. Gogoeta eta erabakitze prozesua zuekin batera egin nahi dugu, gainera; bazkideekin batera. Izan ere, denon artean erabaki behar dugu Elgoibarko Izarra zertarako nahi eta behar dugun.

“Ez dot batere argi ikusten Elgoibarko Izarraren etorkizun ekonomikua”

70eko hamarkadako lehen urteetan hasi zen Marianjeles Elgoibarko Izarrari laguntzen, eta 1990era arte jardun zuen Elkarteko administrazio lanak egiten. Eta bere eskuetatik hamaika txeke, faktura edo nomina pasa bazen ere, ez zuen sekula txikitarik kobratu. Hogei urteko eskarmentuak eman behar duen argiaren bila joan gara berarengana, baina atzoko kontuei hautsa kentzea lortu badugu ere, ez dugu ezer garbirik ikusi etorkizunari erreparatu diogunean.

Akordatzen zara zer lan egiten zenuen hasiera hartan?

Ez naiz ondo akordatzen, baiña goguan daukat, adibidez, ikastolako maisu-maistren soldata batzuk neuk ordaintzen nittuala; neregana etortzen ziran kobratzera. Ikastolako gafiuntzeko diru-kontuak ere neuk eruaten nittuan. Lanik haundixena Ikastoliak ematen zidan, 1973an kooperatiba egitura hartu zaban arte. Gafiuntzian, Elkarteko presidentieri laguntzen jarduten naban, batez ere.

Noiz egiten zenituen Elkarteko lanak? Ordu asko ematen zenituen?

Lanetik urten ondoren egiten nittuan Elkarteko lanak. Gañera, nere laneko bulegua Elkartiak Ubitarten daukan lokalaren albuaz zagan, eta, zerbaitx garrantzitsua zaganian, bulegora etortzen jatan jendia. Bestela, uste dot astian pare bat aldiz pasatzen nitzala Elgoibarko Izarrako bulegotik.

Nondik ateratzen zituen Elkartek diruak, Marianjeles?

Elgoibarko Izarrak ez zeukan dirurik, baiña beti lortzen genduan bihar genduan beste. Nundik etaratzen genduan? Berbenak antolatzen genduzen; Ikastoliaren aldeko tabernia ere urte askuan jarri zan; bazkidiaren kuotak... handik eta hamendik lortzen genduanarekin bizi giñan.

Elkartearen bigarren etapan ere (1990-2010) laguntzen jardun duzu, ezta?

Bai. BARREN martxan jarri zanian, administrari profesionala hartzia erabaki zaban Elkartiak, baiña administrariari laguntzen segititu dot orain dala gitxi arte. Zalantzak argitzera etortzen ziran, batez ere, neregana; bestela, lanetik urten ondoren, neu pasatzen nitzan Elkarteko bulegotik gauzak zela zauden ikustera.

Goazen aurrera begiratzera, Marianjeles. Gurera ere iritsi da zorioneko krisia.

Ez da erreza holako proiektu batentzat dirua lortzia. Ez dot batere argi ikusten Elgoibarko Izarraren etorkizun ekonomikua. Elkartia haunditzeko eta sendotzeko diru asko bihar da, eta



Marianjeles Ortuozte
Elgoibarko Izarrako bazkide-militantea

ez dakitt diru hori nundik lortu bihar dogun.

Txikiak izatera kondenatuta gaude, orduan?

Ez neuke nahi. Erakunde ofizialetatik derrigor etorri bihar da dirua guria bezelako proiektu batek aurrera egitteko. Baiña, bazkidiok eta herritarrok ere mentalizatu egin behar gerala uste dot. Guk ere gure partia jarri bihar dogu. BARRENen kasuan, adibidez, ordaindu egin biharko genduala uste dot. Kafe bategatik euro pasa ordaintzia ez jaku inporta, baiña, prest gaude euro bat pagatzeko BARREN etxeko buzoian jasotziaren truke?



Amaia Arrizabalaga
Elkarteko administrari-burua


Nondik atera behar dugu dirua?

Sekula baino gehiago kosta zaigu aurtengo aurrekontuak prestatzea. Hasieratik erabaki genuen gastuak eta sarrerak parera ekartzea, baina ia lau hilabete eman ditugu aurrekontuak borobildu ezinik. Azkenean, gastu guztiak banan-banan errebisatu ondoren, langile profesionalen soldatak izoztuta, eta diru-sarrera propio berrien aldeko apustua eginda, lortu dugu aurrekontuak ixtea.

Baina, 2011ko aurrekontuak prestatzen hasten garenean, berdin jardun behar dugu? Nondik atera behar du dirua Elgoibarko Izarrak mahai gainean daukan proiektuak finantzatzeko? Badaukagu aukerarik egungo proiektuak sendotzeko edo berriei atek irekitzeko?

Erakunde publikoen laguntza: Erakunde publikoen laguntza ezinbestekoa dugu Elgoibarko Izarraren jardunari eusteko. Eta atal honetan, Elgoibarko Udalaren garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Elgoibarko Udalaren babesik gabe Elgoibarko Izarrak oso etorkizun motza dauka, eta nahiko genuke orain arte erakutsi digun konfiantzari eustea. Egiten duguna herriarengatik eta herriarentzako egiten dugu, eta Udalak ere berdin pentsatzen badu, dirua inbertitu behar du gure proiektuan, orain arte egin duen moduan.

Diru-propioak: Ezin gara, besterik gabe, erakundeek ematen digutenaren zain egon. Erakundeetako dirulaguntzak mantentzen eta handitzen saiatu behar dugu, baina gure diru propioen iturria ere indartu behar dugu. Elgoibarko Izarraren autofinantziazio maila handitzeko ahalegina egin behar dugu, eta horretarako, dirua ematen duten proiektuak eta zerbitzuak ere prestatu behar ditugu. Ez dakit zer izango dugun etorkizunean, baina ez litzateke txarra izango diru propioen iturria gehiago zabaldu eta, urte gutxi barru, aurrekontuen %70 inguru autofinantziazioetik lortuko bagenu.



Jon Peli Uriguen
Udaleko Euskara Batzordeko presidentea

Zenbat diru eman behar dio Udalak Elgoibarko Izarrari?

Galdera zaila da erantzuteko, baina, erantzuten hasi aurretik, beste galdera bat datorkit burura: zergatik lagundu behar dio Udalak Elkarteari? Edo, lagundu behar al dio Udalak Elgoibarko Izarrari? Ni baietzean nago, eta arrazoia ez da bakarria.

Udalak herritarren zerbitzura egon behar du, eta Elgoibarko Izarra ez balego, Elkartearen arduran dauden zenbait proiektu eta zerbitzu Udalak egin beharko lituzke. Elkartek gauza asko ematen dio herriari, eta, ondorioz, Udalari. Adibide moduan, ez al da zoragarria astero-astero gure etxean euskara hutsean dagoen aldizkaria irakurtzeko aukera izatea? Iaz egindako azterketan, gainera, argi gelditu zen jendeak zenbat estimatzen duen Barren. Beraz, Udalak ezinbestean lagundu behar dio horrelako proiektu bati.

Udalak zertan lagundu behar dio Elgoibarko Izarrari? Udalak, nire ustez, finantzaketa eta elkarlana eskaini behar dizkio elkarteari, herritarrentzako egiten diren beste ekimenetan bezala. 1993ti hona Udalak eta Elgoibarko Izarrak hitzarmen ekonomikoa sinatzen dute urtero, hutsik egin gabe. Asko ala gutxi den? Hori eztabaidagarria izan daiteke, baina datu bat bakarrik emango dut: 1993an, 7.550.000 pezetakoa izan zen Udalak elkarteari emandako dirulaguntza (Elkartearen aurrekontuaren %25a); eta 2009an, 245.000 euroko hitzarmena sinatu genuen (aurrekontuaren %38,5a). Hamazazpi urte pasa ondoren, eutsi ez ezik, handitu ere egin da Udalak emandako dirulaguntzaren proportzioa.

Elgoibarko Izarrak Elgoibarri ematen diona asko da, eta, krisiak krisi, 1993an ekin genion bideari eutsi egin behar diogulakoan nago. Bi erakundeok nahi dugu Elgoibar euskalduntzea, eta elkarlanean sakontzea herriaren mesederako izango da.

Dozena bat erretratu



1. Gotzon Garateren omenez: Urriaren 8an (hil zeneko urterurrean) eskaini genion Gotzon Garate zenari ondo merezi zuen herri omenaldia. Omenaldia Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatu genuen, herritar batzuen laguntzarekin.



2. Gotzonen jaiotetxean oroitarria jarri ondoren, Musika Eskolan omendu genuen Gotzon. Aretoak gainezka egin zuen, eta, besteak beste, elgoibartarrok gure esker ona azaldu genien Gotzoni eta bere sendiari.



3. Hitzarmena Udalarekin: 244.459 euroko hitzarmen ekonomikoa sinatu genuen Udalarekin 2009ko proiektuak eta egitasmoak finantzatzeko. Euskara Batzordearekin 155.556 euroko dirulaguntza adostu genuen, eta 88.900 eurokoa Gazteria Sailarekin.



4. BARREN astekaria eta atari digitala: Urtero moduan, aurtenera 42 astetan izan dugu BARREN astekaria gure buzoietan. ElgoiBARREN.net atarian, bestalde, 729 notizia eman genituen iaz, eta 170.800 bisitaldi izan zituen web orriak.



5. Gurean Bai-Merkataritza pintxo artean: Iaz, batez ere, ostalariekin jardun genuen lanean, dendariak ahaztu ez bage-nituen ere. 45 ostalariarekin lan egin genuen, eta, guztira, 106 zerbitzu eskari izan genituen. Ekainean antolatu genuen Gurean Bai Pintxo Lehiaketak, berriz, aparteko arrakasta izan zuen.



6. Egunkariaren alde: *Euskaldunon Egunkariaren* kontrako auzia zela eta, hainbat ekintza antolatu genuen *Egunkaria* kasuko auzipetuei gure elkartasuna erakusteko eta epaiketako gastuei aurre egiteko. Kamiseta eta bono salmentarekin, adibidez, 2.100 euro inguru batu genituen.

2009an egindako garrantzitsuena ikusteko



7. Santa Ageda bezperan: Otsailaren 4an zita garrantzitsua izaten dugu tradizioarekin eta gure baserritarrekin. 17. urtea izan zen iazkoa, eta 21 lagun elkartu ginen. Bi taldetan banatu ondoren, 45 baserri inguru koplatu genituen.



8. Bertsoaren suaren bueltan: Abendua bertsoak berotuta etortzen da gurera. Batetik, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak eta autobus txartelak saldu genituen; eta, bestetik, Gabonetako bertso jaialdian aspaldian ez bezalako jendetza izan genuen: 800 lagun.



9. Atxutxiamaika, betiko martxan: Iaz 2.000 orduetik gorako aisaldi hezitzaile programa prestatu genuen, 2 eta 12 urte arteko umeei euskaraz bizi eta gozatzeko aukera izan dezaten. Inauteriak, udalekuak, Olentzero ... Eta hau dena behar bezala prestatzeko, 30 hezitzaile baino gehiagok jardun zuten lanean.



10. Euskara errefortzuak euskaraz soltatzeko: Bost taldetan banatuta, 5 eta 11 urte arteko 34 haurrek jaso zituzten iaz euskara errefortzuak. 5 hezitzailearen eskutik, astean bi orduko saioak izan ziren, eta metodologia ludikoa oinarritzen dira. Erabileran eta motibazioan eragitea da gure erronka nagusia.



11. Kiribil Plaza Handian: Kiribil, bost hezitzailek lagunduta, hamabi aldiz irten zen, beste horrenbeste ostiraletan, gure herriko txikienekin eta haien gurasoekin jolastera eta kantatzera. Gainera, Madalako parkearen inaugurazioan eta Errosario kaleko jaietan ere egon zen. Kiribilen kamiseta mordo bat ere saldu genuen!



12. Kuadrillategi: Hiru taldetan banatuta, eta zortzi hezitzaile lagun hartuta, 12 eta 16 urte arteko 97 gaztek hartu zuten parte iaz, *kuadrillategi* proiektuak asteburuetan prestatzen dituen programetan. Helburua badakizue zein den: gazte koadriletan euskaraz berba egiteko ohiturak finkatzea.

Erabaki ditugu 2010erako egitasmo eta programa garrantzitsuenak

Aurtengo zeregin eta lanik potoloenak Elgoibarko Izarraren etorkizunari begira daude, batez ere.

Idazkaritza:

- *Komunikazio Plana:* Aspalditik gabilta Elgoibarko Izarraren Komunikazio Plana egin behar dugula esaten, baina, arrazoiak arrazoi, orain arte ez diogu zezenari adarretatik heldu. Aurten bai, aurten erronka honi heltzera goaz, eta aparteko garrantzia eman nahi diogu, gainera. Komunikazio Planean hiru arlo landu nahi ditugu, batez ere: Informazioa, komunikazioa, eta harremanak. Komunikazio Planaren helburu nagusia Elgoibarko Izarra osatzen dugunok komunitate moduan egituratzea eta trinkotzea da. Gaudenon arteko komunitatea osatzea, eta herritar berriak gurera erakartzea.

- *20 urteotan egin dugunaren balorazioa:* 20 urte bete dira 1990an Elgoibarko Izarraren bigarren etapari ekin genionetik, eta urteotan lortutakoaren gaineko balorazioa egin nahi dugu. Zertan asmatu dugu? Zertan huts egin dugu? Abendua bitartean jardungo dugu orain arteko ibilbideak eman duena baloratzen, eta balorazioa amaitzen dugunean, Elgoibarko Izarrak hurrengo urteetan bete behar duen funtzioa aztertu eta erabakiko dugu.

Haurrak eta Gazteak Arloa:

- *Haurrak eta Gazteak Arloko Lan Plana:* 2009an arloaren diagnosis egin eta gero, aurten Lan Planaren lehen fasea amaituko dugu. Lehen fase honetan, besteak beste, Arloaren norabidearen gainean hausnartuko dugu. Eta hausnarketa hau oinarri moduan hartuta, gaur egun martxan dauzkagun proiektuak ere aztertuko ditugu. Dagoeneko hasi gara *Atxutxiamaika* eta *Kuadrillategi* proiektuak birdefinitzen.

Oharra: Lan Planaren gaineko informazio gehiago jasotzeko, irakurri berripaperarekin batera banatu dugun elkarrizketa.

- *Eskaintzaren kalitatea mantenduko dugu:* Azken bi urteotan Haurrak eta Gazteak Arloari Udalak ematen dion laguntza %25 baxatu bada ere, proiektuen jardueren kalitatea mantentzen saiatuko gara (kantitatean behera egitera derrigortuta gauden arren).

- *Zerbitzuak indartu:* Autofinanziazioan gora egiteko helburuarekin, aisialdi hezitzaileari lotutako zerbitzuak prestatu eta indartu nahi ditugu aurten. Arloaren autonomia indartu nahi dugu, eta, dirua lortzeko, aisialdi hezitzaile euskalduna lantzeko eta sustatzeko zerbitzuak eskainiko ditugu.

BARREN astekaria eta elgoiBARREN.net atari digitala:

- *Lan Plana:* Zertarako nahi dugu BARREN astekaria? Eta elgoiBARREN.net atari digitala? Zer eskaini behar dugu batean eta bestean? Horrelako eta antzerako galderen inguruan egingo dugu Lan Plana. Duela hamazazpi urte hasi ginen BARRENekin lanean, eta, ordutik, gizartea eta hedabideen mundua asko aldatu dira. Egoera berrira egokitutako hedabideak prestatu nahi ditugu.

- *Estilo liburua:* Orain arte BARRENen izan ez dugun lanerako erreminta izango dugu aurrerantzean: Estilo Liburua. Askok kostatu ondoren, amaitu dugu lana, eta badaukagu gure medioen filosofia eta idazteko modua markatuko digun Estilo Liburua.

- *Dirua lortu:* Arazoak dauzkagu BARRENeko eta elgoiBARREN.net atari digitaleko aurrekontuei aurre egiteko, eta, besterik ezean, diru propioak lortzeko ahaleginari ekin beharko diogu berandu baino lehen. Diru iturri berriak zabaldu behar ditugu 2010eko gastuak eta sarrerak parera ekartzeko.

Urte hasieran 18.000 euroko defizita onartu bagenuen ere, azkenean 4.000 euroko diru-zuloa baino ez dugu izan.

Gustura gaude 2009ko balantze ekonomikoarekin. Urte zaila izan da, eta lan handia egin behar izan dugu gastuak eta sarrerak parera ekartzeko, baina, azkenean, lortu dugula esan dezakegu. 2008an baino aurrekontu handiagoa izan arren (37.000 euro handiagoa), defizita txikia izan da. Gainera, diru-sarrera propioen portzentajeak lau puntutan egin du gora, eta autofinantziazio maila %52koa izan da. Ikus ditzagun daturik garrantzitsuenak:

2009	Gastuak	Sarrerak
Haurrak eta Gazteak	439.500	438.500
Barren/elgoiBARREN.net	317.000	314.525
Gurean Bai-Merkataritza	31.365	31.365
Bestelakoak	49.658	48.658
Guztira:	837.523	833.048

Diru-sarreren desglosea
Udalaren dirulaguntza: 244.459,00 (% 29)
Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia: 158.412,00 (% 19)
Diru-sarrera propioak: 430.177,00 (*) (% 52)
(*) Kopuru honetan Udal ekipamenduak kudeatzeko dirua dago sartuta (205.665 euro)

116.000 eurotan gutxitu dugu 2010eko aurrekontua, 2009koarekin konparatuta

Guk ere gure gerriko partikularra jarri behar izan dugu aurtan, eta 2010eko aurrekontuak dezente txikitu ditugu (iaz baino 116.000 euro gutxiago gastatuko dugu). Diru-sarrerak, orokorrean, jaitsi egin dira, eta Udalaren dirulaguntza ere dezente gutxitu denez (% 20,40 azken bi urteotan), gastuak ezinbestean gutxitu ditugu sarrerak eta gastuak berdintzeko. Gainera, diru-sarrera propioen iturri berriak ere zabaltzera derrigortuta gaude, urte amaieran defizit izan nahi ez badugu behintzat. Ikus ditzagun 2010eko aurrekontuko datu esanguratsuenak:

2010	Gastuak	Sarrerak
Haurrak eta Gazteak	410.000	408.865
Barren/elgoiBARREN.net	290.000	282.575
Gurean Bai-Merkataritza	10.400	10.400
Bestelakoak	11.354	11.378
Guztira:	721.754	713.218

Diru-sarreren desglosea
Udalaren dirulaguntza: 220.048,00 (% 30,5)
Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia: 115.690,00 (% 16)
Diru-sarrera propioak: 386.015,00 (*) (% 53,5)
(*) Kopuru honetan Udal ekipamenduak kudeatzeko dirua dago sartuta (198.800 euro)

Gurean Bai Hitzarmenaren amaiera

1996ko urtarrilean ekin genion Gurean Bai Hitzarmenari, eta hamalau urteko ibilbidearen ondoren, aurtengo uztailan itxi egingo ditugu proiektuko atak. Udalaren dirulaguntzak asko murriztu dira azken bi urteotan, eta bi erakundeok adostuta, Gurean Bai Hitzarmena bertan behera lagatzea erabaki dugu. Esan bezala, 1996an hasi ginen entitateak eta erakundeak euskalduntzeko hitzarmenarekin, eta 2003ra arte jardun genuen zeregin horretan. Gero, 2002ko urtarrilean, Gurean Bai-Merkataritza Hitzarmena aurkeztu genuen, dendari-ekin lan egiteko. Amaitzeko, 2007ko uztailan Elgoibarko ostalariekin hasi ginen lanean, eta ordutik jardun dugu herriko ostalaritza euskalduntzeko ahaleginean. Egindako lanak merezi izan duelakoan esango diogu agur Gurean Bai.



Jendea gustura dago ludotekarekin eta gaztelekuarekin

Zuen baimenarekin, ludotekan eta gaztelekuan egiten dihardugun lana azpimarratu nahi dugu. Guretzat erronka berria zen Udal zerbitzu hauek kudeatzea, baina oso pozik gaude gaur arte egin dugunarekin. Datuak dauzkagu haurrak eta nerabeak ekipamenduetara gustura joaten direla esateko, eta badakigu haien gurasoak ere pozik daudela gure lanarekin. Udaleko ordezkariak ere bat egiten dute gure jardunarekin, eta bide beretik segitzeko babesa eskaini digute. Honekin batera, ludotekan eta gaztelekuetan lanean diharduten hezitzaileak nabarmendu nahi ditugu, benetan ondo ari direlako. Amaitzeko, zerbitzuaren izaera integrala azpimarratu nahi dugu. Egokitzapenak egin ditugu, adibidez, behar bereziak dituzten haur eta nerabeek bi ekipamenduok modu naturalean erabiltzeko.



Elgoibarko Izarraren web orria udazkenean

Lehenago aurkeztu nahi genuen jendaurrean, baina, arazo batzuk eraginda, ezingo dugu Elgoibarko Izarraren web orria udazkenean arte aurkeztu. Lanik potoloenak eginda dauzkagu, baina oraindik dezente falta zaigu web orria bazkide eta herritarren aurrera azaltzeko moduan egoteko. Ekainean hasiko gara falta diren lanak egiten, eta okerrik ez bada, udazkenean aurkezteko moduan izango gara. Web orriaren helburua Elkartearen gaineko informazioa bazkideen eta herritarren artean zabaltzera izango da, eta ahal dugun neurrian, denon arteko komunikazioa ere bultzatu nahiko genuke dugu. Besteak beste honako atalak aurreikusten ditugu: albisteak, agenda, Elkartearen historia, erretratuak ...



Berripaperaren arduraduna: Imanol Larrañaga

Tel.: 943 74 16 26

E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

Diseinua eta maketazioa lanak: Leire Rubio

Tirada: 700 ale

Inprimategia: Inprenta Arrillaga.